

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

1245

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 1ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita euskara eta euskal kulturako sei irakurle hautatzeko deialdia irekitzeko ebazpenari dagokionez Poznango Unibertsitateko lan-baldintzen eta bertaratze-dataren aldaketa eta Helsinkiko Unibertsitateko lan-baldintzen eta Etxepare Institututik deialdi honetan ikasturte bakoitzean bideratutako guztizkoa gehienezko ekarpenaren aldaketa.

2023ko otsailaren 17an argitaratu zen EHAAAn (34. zk.) 2023ko otsailaren 2ko Ebazpena, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, euskara eta euskal kulturako sei irakurle hautatzeko deialdia irekitzeko dena.

Ebazpen horren 4.5 artikulua honako hau ezartzen du Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitateko lan-kargari dagokionez:

«5.– Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitaterako:

Eskola orduak: irakurleak 330 eskola orduko lan-karga izango du ikasturte osoan.»

Bestalde, 6. artikulua ezartzen du irakurle izateak, besteak beste, Etxepare Euskal Institutua-rekiko konpromiso hau onartzea dakarrela: unibertsitateetara data zehatz baterako bertaratzea. Poznango Unibertsitateari dagokionez:

«– Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitatera bertaratzea, 2023ko urriaren 1a baino lehen, urriaren 2an klaseak ematen hasteko.»

Gainera, 2.1 artikulua Etxepare Euskal Institututik deialdi honetan ikasturte bakoitzeko bideratutako guztizkoa ezartzen du. Helsinkiko Unibertsitateari dagokionez:

«– Helsinkiko Unibertsitaterako, gehienez hamabi mila eta ehun (12.100) euro ikasturteko. Kopuru hau eskainiko den ikasgai kopuruaren arabera doitu da.»

Azkenik, 4.6 artikulua honako hau ezartzen du Helsinkiko Unibertsitateko lan kargari dagokionez:

«6.– Helsinkiko Unibertsitaterako:

Eskola orduak: irakurleak gutxienez 224 orduko lan-karga izango du ikasturte osoan. Hautatutako pertsonak soziolinguistikako ezagutzak baditu eta euskal hizkuntzari edo hizkuntzalaritzari buruzko masterra badu, unibertsitatean ematen den soziolinguistikako irakasgaia eman lezake. Horrek irakaskuntza-karga ikasturte bakoitzeko 252 ordukoa izatea ekarriko luke.»

Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitateari dagokionez, egiaztatuta geratu da goian aipatu den eskola-ordu kopurua eta bertaratze-data ez direla zuzenak. Helsinkiko Unibertsitateari dagokionez Etxepare Euskal Institututik deialdi honetan ikasturte bakoitzeko bideratutako guztizkoa eta eskola-ordu kopurua ez dira zuzenak. Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitateari dagokionez egokitzat jotzen da ordu-kopuru hori eta bertaratze-data eguneratzea. Helsinkiko Unibertsitateari dagokionez egokitzat jotzen da Etxepare Euskal Institututik deialdi honetan ikasturte bakoitzeko bideratutako guztizkoa eta aipatutako ordu-kopurua ere eguneratzea.

Ondorioz, 4.5 artikulua aldatu egingo da Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitateari dagokionez eta honela idatzita geratuko da:

«5.– Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitaterako:

Eskola-orduak: irakurleak 360 eskola orduko lan-karga izango du ikasturte osoan.»

Halaber, 6. artikuluan jasotzen den Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitateara bertaratzeko konpromisoa aldatu eta horrela idatzita geldituko da:

«– Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitateara bertaratzea, 2023ko irailaren 25a baino lehen, zenbait izapide egiteko eta urriaren 2an eskolak ematen hasteko.»

Horrela, Helsinkiko Unibertsitateari dagokionez 2.1 artikulua aldatu egingo da eta honela idatzita geratuko da:

«– Helsinkiko Unibertsitaterako, gehienez hogeita mila (20.000) euro ikasturteko. Kopuru hori eskainiko den ikasgai kopuruaren arabera doitu da.»

Halaber, Helsinkiko Unibertsitateari dagokionez 4.6 artikulua aldatu egingo da eta honela idatzita geratuko da:

«6.– Helsinkiko Unibertsitaterako:

Eskola-orduak: irakurleak gutxienez 224 orduko lan-karga izango du ikasturte osoan. Hautatutako pertsonak soziolinguistikako ezagutzak baditu eta euskal hizkuntzari edo hizkuntzalaritzari buruzko masterra badu, unibertsitatean ematen den soziolinguistikako irakasgaia eman lezake. Horrek irakaskuntza-karga ikasturte bakoitzeko 271 ordukoa izatea ekarriko luke.»

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Publizitatea ematea euskara eta euskal kulturako sei irakurle hautatzeko deialdia irekitzeko 2023ko otsailaren 17an EHAAAn argitaratutako deialdiaren 4.5, 6, 2.1 eta 4.6 artikuluen aldaketari.

2.– Ebazpen hau EHAAAn argitaratzeko agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Donostia, 2023ko martxoaren 1a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.